



**DEIALDIA, IKASTETXEETAKO LANGILEEN ARDURADUNAREN C MAILAKO 1 PLAZA
(LEHEN MANTENTZE-LANETAKO ARDURADUNAREN LANPOSTU OSAGARRIDUNA, C
MAILAKOA) OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO, HEZKUNTZAKO, HERRITARREN
PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORREAN**

IZENDAPEN-PROPOSAMENA.

Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko ikastetxeetako langileen arduradunaren 1 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiaren 9. oinarrian xedatutakoa betez –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen 2025eko azaroaren 17an, eta 2025eko 242. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 4koan, argitaratu zen–, oposizioko kalifikazio-epaimahaiak aurkeztu du proba gainditu duen eta deialdian eskaturiko betekizunak betetzen dituen izangaiaren aldeko izendapen-proposamena, deialdian eskaini zen plaza kopuruaren arabera:

ABIZENAK ETA IZENA
RODRÍGUEZ PÉREZ, ANTONIO FERNANDO

Epaimahaiaren proposamena ikusirik eta deialdiaren 8.2 oinarrian ezarritakoarekin bat,

ERABAKITZEN DA:

1. Proposatutako izangaiari eskatzea oinarri horretan eskatzen den dokumentazioa aurkez dezala Iruñeko Udalaren erregistro orokorraren bidez, **proposamen hau deialdiaren web-fitxan argitaratu ondoko 10 egun balioduneko epean:**

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiri baliokidearena.
- b) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela berezia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.
- c) Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.
- d) Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa.

Oharra: Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzutik dei eginen zaio azterketa medikoa egitera joan dadin, egiaztatzeko ez duela lanpostuaren eginkizunak betetzea eragozten dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik.

2.- Erabaki hau www.pamplona.es/eu webgunean argitaratzea, deialdiaren web-fitxan.

Iruñean, 2026ko uztailaren 27an. – Tokiko Gobernu Batzarreko jarduneko idazkaria, Joxe Abaurrea San Juan.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

GIZA BALIABIDEETAKO ALORRA
Langileak

ÁREA DE RECURSOS HUMANOS
Personal